

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZA

Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluaren ebazpena, zeinaren bitartez Getxoko itsas geltoki berria (OLATUA) erabiltzeko tarifak onetsi diren.

Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 13an egindako bileran honako honen berri eman zen: Getxo-3ko itsas geltoki berria (Olatua) eta alboko zabaldegia itsas bidaien trafikorako jarduera nagusia egiten ez den aldietan jarduera osagarrietarako erabiltzeko tarifak eta baldintza operatiboak, zerbitzuaren kostuei begira. Hori dela eta, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bateginaren 246.2. artikuluan xedatutarekin bat etorritz, honako hau erabaki zen aho batez:

- Getxo-3ko Itsas Geltoki berria (Olatua) eta alboko zabaldegia erabiltzeko tarifak onestea, jarraian adierazitako terminoetan, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren erakunde-webguneetan eta egoitza elektronikoan argitaratzea.

1. T-7 TARIFA OROKORRA (ESPAZIOAK OKUPATZEA)

1.1.- Lokalak eta eraikinak

Bidaiarien terminala - Olatua: 1 euro/m²/egun

Azalera, guztira = 3.219,44 m² (beheko solairua: 1.125,55 m² + solairuarte: 130,54 m² + lehenengo solairua: 1.963,35 m²).

Ezin dira 1.000 pertsona edo gehiago egon, Eraikingintzaren Kode Teknikoaren DB-SI3ko 8. atalarekin bat etorritz.

1.2.- Ageriko lurrak:

0,5 euro/m²/egun

Azalera, guztira = 9.360 m²

1.3.- Hobariak

- Erabiltzailea administrazio publikoko organo edo entitate bat denean % 50eko hobaria aplikatuko da T-7an.

- Erabiltzailea administrazio publikoko organo edo entitate bat denean eta gizarte- edo kultura-intereseko jarduerak egiteko erabiltzen duenean, irabazi asmorik gabeko ekitaldietan, % 90eko hobaria aplikatuko da T-7an.

- Erabiltzailea entitate pribatu edo subjektu bat denean eta gizarte- edo kultura-intereseko jarduerak egiteko erabiltzen duenean, egiaztatutako irabazi asmorik gabeko ekitaldietan, % 50eko hobaria aplikatuko da T-7an.

2. T-8 TARIFA (URA ETA ENERGIA ELEKTRIKOA)

Kontsumoaren gutxienerako datuak:

2.1.- Ura: 30 euro/6 ordu edo frakzioa

2.2.- Energia elektrikoa: 35 euro/ordu

3. T-9 TARIFA (HAINBAT ZERBITZU)

3.1- Portuko langileak:

50 euro/ordu/pertsona/lanegun

80 euro/ordu/pertsona/jaiegun

3.2.- Garbiketako gutxienerako zerbitzua: 550 euro/ekitaldi

3.3.- Mantentze-zerbitzua, eskatuta: 35 euro/ordu Gutxienez 4 ordu.

Kontratutako diren zerbitzu teknikoei eta osagarriei dagokienez, une bakoitzean eta zerbitzu bakoitzerako Bilboko Portuko Agintaritzak adjudikatuta dituenak izango dira. Hornitze horien ondorioz sortzen diren gastuak erabiltzaileak zuzenean ordainduko dizkie kontratatutako enpresei.

Interesdunak Merkataritza Sailarekin harremanetan jarriko dira eskaera egiteko, eta bertan azalduko dituzte egingo diren jarduerak eta erabilerak, iraupena, ekitaldia egiteko premiak, xedea eta abar. Bilboko Portuko Agintaritzak horrekin zerikusia duen informazio osagarria eskatu ahal izango du, bai erabileraren tarifa ezartzeko, bai eskaerak onetsi edo ukatzeko. Bilboko Portuko Agintaritzak izango du eskaera onesteko edo ukatzeko hautazko ahala, eta horretarako kontuan hartuko ditu ea eraikina eta azalerak erabiltzeko moduan dauden eta egingo diren jarduerak eta/edo duten xedea egokiak diren. Edonola ere, aintzat hartuko ditu eraikinaren eta alboko espazioen itsas bidaietako trafikoari lotutako jarduera nagusiagatik sor daitezkeen mugak.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 114. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraikiz. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan, hilabeteko (1) epean, aipatutako legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, edo zuzenean administrazioarekiko auzien errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi (2) hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, 8.3. artikuluan, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluei dagokienez ezarritakoari jarraikiz.

Santurtzin, 2017ko uztailaren 13an. Lehendakaria, Asier Atutxa Zalduegi.
Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.